

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023****SPRI**

1. BEINT nazioatekotze bekak 2023 .....	2
2. Elkartu 2023 .....	3
3. Gauzatu Internacional 2023 .....	4
4. Global Training 2023 .....	5
5. Pilotu 2023.....	6
6. Sakondu 2023 .....	7
7. Zabaldu 2023.....	8
8. BDIH Konexio 2023 .....	9
9. Hazinnova 2023.....	10
10. Innobideak Innokonexio 2023 .....	11
11. Barne-ekintzaile 2023.....	12
12. Ekintzaile 2023 .....	13
13. Ekintzaile + .....	14
14. Lortu 2023 .....	15
15. Renove Industria 4.0 2023 .....	16
16. Erronka 2030 .....	17
17. Banda zabal ultralasterra enpresentzat 2023 .....	18
18. Gaitasun digital profesionalak 2023 .....	19
19. Zibersegurtasun industrialia 2023 .....	20
20. Industria Digitala 2023.....	21
21. Adimen artifizial aplikatua 2023.....	22
22. Cloud 2023 .....	23
23. Smart industry 2023 .....	24



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**BEINT nazioartekotze bekak 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 1koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen eta argitaratzen baitira 2023ko «BEINT NAZIOATEKOTZE BEKAK» laguntza programa arautzen duten oinarriak, eta laguntzetarako deialdia egiten baita.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/03/2301299e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarri hauen xedea da Beint 2023 Nazioartekotze Beken programa arautzea, zeinaren helburua baita unibertsitateko tituludun gazteak prestatzea nazioartekotzearen arloan, euskal enpresek eta beste erakunde batzuek profesionalen oinarri bat izan dezaten etorkizunean eta eraginkortasunez aurre egin diezaieten ekonomia irekiaren erronkei. Prestakuntzako xede hori programa honetan parte hartu nahi duten unibertsitate, enpresa eta nazioartekotzea sustatzeko erakunde publikoen zein pribatuen lankidetzaren bitartez gauzatuko da

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako kreditu guztia agortzen da, 4.500.000 euro guztira.

Programa honi heltzeko beharrezko baldintzak betetzen dituzten pertsonak dira onuradunak. Oinarriak izapidetzeko orduan, ex ante azterketa bat egiten da programaren eraginari buruz, eta, ondoren, emandako beken jarraipena egiten da, datuak sexuaren arabera banakatuta, genero-kontuengatiko praktiken esleipenean diskriminaziorik edo alborapenik ez dagoela monitorizatzeko.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako diru laguntzak	100	100



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

<b>Elkartu 2023</b>
---------------------

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 29koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, «Elkartu 2023» laguntza programaren deialdia arautzeko oinarriak onartzen dituen
--

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<a href="https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2023003567">https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2023003567</a>
---

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Elkartu programako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntza publikoak dira. Laguntza horiek helburutzat dute enpresen arteko lankidetzaren bultzatzea nazioartekotzearekin zerikusia duten proiektuetan eta, 17. GJHari jarraikiz, aliantzak sortzea garapen jasagarria lortzeko.
--

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako ia kreditu guztia agortzen da, 482.659,45 euro guztira (500.000ko aurrekontuarekin) . Onuradunek diskriminaziorik ezari, ingurumenari eta abarri buruzko egungo legeria betetzen dutela zaintzen da.
--

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzak	15	13



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gauzatu Internacional 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 9koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, «GAUZATU INTERNACIONAL 2023» laguntza programaren deialdia arautzeko oinarriak onartzen dituena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302954e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen xedea da atzerrian dauden euskal enpresen ezarpenak (produkzio-ezarpenak edo produkzio-prozesuari lotutako zerbitzu teknikoak) kokatzen, zabaltzen eta berritzen laguntzea, babesa emanez sendotu daitezten eta jomuga-merkatu horietan duten presentzia indartu dezaten, horrela euren lehiakortasuna handitzeko eta etorkizuneko bideragarritasuna ziurtatzeko nahiz garapen jasagarria bultzatzeko euren nazioartekotze-prozesuetan. Norgehiagoka-prozeduraren arabera emango diren laguntza hauek aurrerakin itzulgarriak izango dira, eta publizitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioei jarraituz esleituko dira.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako ia kreditu guztia agortzen da, 4.658.739,59 euro guztira (5.000.000ko aurrekontuarekin) . Onuradunek diskriminaziorik ezari, ingurumenari eta abarri buruzko egungo legeria betetzen dutela zaintzeaz gain, proiektuen balorazioaren barruan, gizarte-konpromisoa eta iraunkortasuna sartzen dira irizpide gisa, % 20eko portzentajezko pisuarekin. Bertan, helmugako ingurunearen gaineko eragin positiboa aztertzen da (2030 Agenda, giza eskubideen errespetua), baita ingurumenaren iraunkortasunaren, genero-berdintasunaren, euskararen sustapenaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren arloko ziurtagiriak eta/edo planak ere.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzak	8	8



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Global Training 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 2koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen eta argitaratzen baitira 2023ko «Global Training» laguntza programa arautzen duten oinarriak, eta laguntzetarako deialdia egiten baita.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2023002763>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

«Global Training» beka-programak aukera ematen die Euskadiko unibertsitateko tituludun eta goi-mailako lanbide heziketako graduatu gazteei atzerrian profesionalki trebatzeko, praktika ordainduak eginez beren espezialitate akademikoarekin zerikusia duten enpresa edo erakundeetan. Proiektu honen bidez EAEko gazteen nazioz gaindiko mugikortasuna sustatzen da, euren prestakuntza osatu dezaten eta aukera izan dezaten pertsonalki nahiz profesionalki hazteko.

Oinarri hauen bidez finkatuko da «Global Training» 2023 programako beka bakarka edo lankidetzan kudeatzen dituzten erakundeei emango zaizkien funts galdurako dirulaguntzen erregimena. Beka horien helburua da unibertsitateko eta goi-mailako Lanbide Heziketako titulua duten gazteek prestakuntza praktikoa jaso dezatela atzerriko enpresa eta erakundeetan.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako kreditu guztia agortzen da, 6.415.000 euro guztira.

Gure onuradunek (erakunde laguntzaileek) diskriminaziorik ezari, ingurumenari eta abarri buruzko egungo legeria betetzen dutela zaintzeaz gain, emandako beken jarraipena egiten da, datuak sexuaren arabera banakatuta, genero-arrazoiengatiko praktiken esleipenean diskriminaziorik edo alborapenik ez dagoela monitorizatzeko.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako diru laguntzak	500	428



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Pilotu 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 15koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, «Pilotu2023» laguntza programaren deialdia arautzeko oinarriak onartzen dituen

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2023003102>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Pilotu programako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntza publikoak dira eta helburutzat dute babesa ematea nazioarteko inbertsio publikoko proiektu pilotuen diseinuan eta garapenean parte hartzen duten euskal enpresei.

Zehazkiago, Pilotu programaren helburua da nazioarteko inbertsio publikoko proiektu pilotuak garatu behar dituzten Euskal Autonomi Erkidegoko enpresei laguntzea. Proiektu horien xedea da lan-modu, metodologia eta, besteak beste, proposamen berritzaileak probatzea eskala mugatuan, eta gero bolumen handiagoko proiektuetan erreplikatzeko, lortutako esperientziatik abiatuta.

Horretarako, ezinbestekoa da proiektu pilotua gauzatzeko eskumena duen atzerriko organismo publiko batek konpromisoa hartzea proiektu horren garapena partzialki finantzatzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako ia kreditu guztia agortzen da, 264.125,49 euro guztira (300.000ko aurrekontuarekin). Onuradunek diskriminaziorik ezari, ingurumenari eta abarri buruzko egungo legeria betetzen dutela zaintzeaz gain, proiektuen balorazioaren barruan, gizarte-konpromisoa eta iraunkortasuna sartzen dira irizpide gisa, % 15eko portzentajezko pisuarekin. Bertan, helmugako ingurunearen gaineko eragin positiboa aztertzen da (2030 Agenda, giza eskubideen errespetua), baita ingurumenaren iraunkortasunaren, genero-berdintasunaren, euskararen sustapenaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren arloko ziurtagiriak eta/edo planak ere.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzak	6	6



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Sakondu 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 3koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, «Sakondu 2023» laguntza programaren deialdia arautzeko oinarriak onartzen dituen

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/07/2303498e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

SAKONDU programaren helburua nazioartean presentzia –dagoeneko ohikotzat jotzen dituzten enpresak laguntzea da, barne-merkatuaren garrantzi bera edo handiagoa duten kanpoko beste merkatu batzuen aldean– lehiakortasun maila proportzionalki txikiagoa duten merkatuetan alegia. Hain zuzen, aholkularitza estrategikoaren eta operazionalaren arloan egin behar diren gastuak dira, baita –kanpoko merkatuetan sartzea ahalbidetzeko– enpresen sustapenarekin eta antolamendu egokitzapenarekin lotuta daudenak ere.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako kreditu guztia agortzen da, 1.425.000 euro guztira.

Onuradunek diskriminaziorik ezari, ingurumenari eta abarri buruzko egungo legeria betetzen dutela zaintzeaz gain, proiektuen balorazioaren barruan, gizarte-konpromisoa eta iraunkortasuna sartzeko irizpide gisa, % 15eko portzentajezko pisuarekin. Bertan, helmugako ingurunearen gaineko eragin positiboa aztertzen da (2030 Agenda, giza eskubideen errespetua), baita ingurumenaren iraunkortasunaren, genero-berdintasunaren, euskararen sustapenaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren arloko ziurtagiriak eta/edo planak ere.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzak	90	65



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Zabaldu 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 3koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako Nazioartekotze zuzendariarena, «Zabaldu 2023» laguntza programaren deialdia arautzeko oinarriak onartzen dituena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2023003499>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

ZABALDU programaren helburua nazioartekotu nahi duten enpresa hasiberriak sustatzeko ekimenak bultzatzea da, Zabaldu programak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak ematen ditu, enpresen gastuak arintzeko. Hain zuzen, aholkularitza estrategikoaren eta operazionalaren arloan egin behar diren gastuak dira, baita –kanpoko merkatuetan sartzeari ahalbidetzeko– enpresen sustapenarekin eta antolamendu egokitzapenarekin lotuta daudenak ere.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Esleitutako kreditu guztia agortzen da, 2.500.000 euro guztira.

Onuradunek diskriminaziorik ezari, ingurumenari eta abarri buruzko egungo legeria betetzen dutela zaintzeaz gain, proiektuen balorazioaren barruan, gizarte-konpromisoa eta iraunkortasuna sartzen dira irizpide gisa, % 15eko portzentajezko pisuarekin. Bertan, helmugako ingurunearen gaineko eragin positiboa aztertzen da (2030 Agenda, giza eskubideen errespetua), baita ingurumenaren iraunkortasunaren, genero-berdintasunaren, euskararen sustapenaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren arloko ziurtagiriak eta/edo planak ere.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzak	200	153





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**BDIH Konexio 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko abuztuaren 8koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, «Basque Digital Innovation Hub (BDIH) – Konexio 2023» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia argitaratzea agintzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/09/2304106e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da euskal industriari Basque Digital Innovation Hub (BDIH) eta Europako zenbait Digital Innovation Hubs (DIHs) esperimazio- eta testatze-azpiegituren erabilerarako sarbidea, konexioa eta laguntza teknikoa emango dion zubi-plan bat aurrera eramatea.

Helburu hau BDIHko edo aukeratutako nazioarteko DIHko eragileek eskainitako laguntza tekniko baten bidez gauzatuko da, zenbait nodok eskaintzen dituzten teknologia digitalak eta jasangarriak xurgatzeko gaitasuna areagotzeko aukera emango duen ekintza-plan bat edo kontzeptu proba bat egiteko. Hauek dira aipatutako nodo horiek: Robotika malgu eta kolaboratiboa, Fabrikazio gehigarria, Material aurreratuak, Zibersegurtasuna, Makina adimendun eta konektatuak, Sare elektriko digitalak eta Gailu medikoak eta osasun digitala, lehen aipatu ditugun azpiegiturretan gauzatzekoak.

Ekintza horiek emaitzara irekitako metodologia bati jarraituz gauzatuko dira, enpresek aukera izan dezaten zentroek zer-nolako laguntza ematen dieten erabakitzeko; era horretan, eskaintzen diren aktibo eta zerbitzuen nahiz enpresen eta haien beharrezaneren arteko egokitzapena hobea izango da.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

BDIH Konexiok 125 eskaera jaso ditu 2023an, hau da, aurreko urtean baino % 18 gehiago. 37 eskaera baztertu behar izan ditugu aurrekontua, 992.360 eurokoa, agortu delako.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	110	125
Onartutako eskabideen kopurua	100	86



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hazinnova 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 31koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baitira «Hazinnova» 2023ko laguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2023001835>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Produktuetan eta negozioaren prozesuetan berrikuntza txikiak sortzen dituzten mikroproiektuak egitea, inpaktu handikoak eta konpainietan epe laburreko emaitzetan gauzatzen direnak.

Enpresen lehiakortasuna hobetzea, berrikuntza sustatuz, soluzioak identifikatuz eta horiek ezarriz, aholkularitza-zerbitzu espezializatu baten bidez.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023 programa sendotzeko ekitaldia izan da. Iaz, ETEei lagundu zitzairen berrikuntzaren munduan sartzen, 412 proiektu lagunduz. Aurten, nabarmen handitu da haien jarduera, 512 proiektu babestuz, 2.400.000 euro ordainduz. Horrek esan nahi du % +24ko hazkundea izan dela, eta ezarritako helburua gainditzea 500 proiektura iristea zen.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako proiektuen kopurua	500	512



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Innobideak Innokonexio 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 15ekoa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez «Innobideak-Innokonexio 2023» laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2023002508>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Berrikuntza-proiektuak egiten laguntzeko laguntza-programa, erakundeetan berrikuntzaren kudeaketa eta sistematizazioa finkatzen laguntzeko eta, horrela, EAEko enpresa berritzaileen oinarria handitzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan industria- eta enpresa-jarduera sustatzea eta euskal enpresei trantsizio teknologiko-digitala, energetiko-klimatiko eta soziosanitarioa lehiakortasun-bektore gisa txertatzen laguntzea, inbertsioaren, berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta enpresa-jarduera ekintzailearen sustapenaren bidez.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Innobideak-Innokonexiok 127 eskaera jaso ditu, hau da, aurreko urtean baino % 7 gehiago. Nabarmenezkoa da berrikuntza-proiektuek izan duten hazkunde nabarmena ( % 15), eta, bereziki, prozesuetako berrikuntza-proiektuek izan dutena ( % 62,5). Aurreko urtearen aldean, emandako dirulaguntzen zenbatekoa % 20 inguru igo da, 2.000.000 euro baino gehiago eman eta gero.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako proiektuak	233	127
Onartutako proiektuak	200	101



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Barne-ekintzaile 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 12koa, SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Zuzendariarena, "Barne-Ekintzaile" 2023 laguntza-programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzen dituen

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/05/2302506e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarri hauen helburua da barne-ekintzaileen laguntza arautzea Euskal Autonomia Erkidegoan heltzeko eta abian jartzeko prozesu osoan zehar, euskal enpresen barruan egindako ekintzailletza-jarduera kontuan hartuta, enpresa-proiektu berriak bultzatzeko

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Barne-ekintzaile Programak 400 proiektu inguru onartu ditu 2015-2023 aldian, eta barne-ekintzailletzan jarduten du negozio berriak garatzeko eta aukera berrietatik sortutako jarduera, produktu eta zerbitzu berrietara dibertsifikatzeko. 800.000 euroko laguntza eman da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	65	39
Onartutako eskabideen kopurua	60	39



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ekintzaile 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 12koa, SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren zuzendariarena, "EKINTZAILE" 2023 laguntza-programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzen dituen

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/05/2302421e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarri hauen helburua da EAEn dauden Bussiness Innovation Center (BIC) zentroetako baten tutoretzapeko enpresa-proiektu berritzaile berrientzako eta/edo industria- eta teknologia-oinarriko eta/edo prozesu-proiektu industrialari lotutako zerbitzuetako enpresa-proiektuentzako laguntza arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoan heltzeko eta abian jartzeko prozesu osoan zehar

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Ekintzaile programak 1.000 proiektu inguru onartu ditu 2015-2023 aldian, eta pertsona edo enpresa ekintzaileei enpresa-proiektuak heltzeko eta abian jartzeko laguntza emateko programa nagusia da. 1.7000.000 euroko laguntza eman da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	85	96
Onartutako eskabideen kopurua	80	96



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ekintzaile +**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko abuztuaren 4(e)koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen, argitaratzen eta deitzen baitira “Ekintzaile+” laguntza-programa arautzen duten oinarriak

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/08/2304061e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarri hauen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2023an enpresa abian jartzeko fasean, produktu-prozesuari lotutako enpresa-proiektu berritzaile edo teknologia-oinarrikoei, industria-proiektu edo zerbitzu berriei eta ezagutza intentsiboko enpresa-proiektu berriei emango zaien laguntza arautzea

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Ekintzaile + programa 2023an argitaratu da lehen edizioan, potentzial handiko enpresa txikien hazkunde azkarra ahalik eta gehien bizkortzeko. 11 proiektu onartu dira (helburuaren gainetik) eta deialdiaren aurrekontuaren % 100 kontsumitu da (1.000.000 €).

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	12	33
Onartutako eskabideen kopurua	10	11



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lortu 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 15ekoa, Spri-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen, argitaratzen eta iragartzen baitira "LORTU" 2023 laguntza programa arautzen duten oinarriak

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2303103e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea da industria-produktu eta industria-prozesuekin lotutako zerbitzuen industria-enpresei zuzendutako kanpoko laguntza profesionala arautzea, elkarrekin birfinantzaketa-proiektu bat egin ahal izateko, enpresaren abiapuntu operatibo eta finantzariorik abiatuta, enpresaren jarraipena eta etorkizuna zaintzeko egin daitezkeen jarduketak azter ditzan

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortu programa 3 ediziotan argitaratu da (2021-2023 aldia), eta eskaera handituz joan da, bai eskaerei dagokienez, bai onartutako proiektuei dagokienez. Aurreikusitako helburuen gaineratik dago (+% 55 2023an), eta deialdiaren aurrekontuaren % 100 kontsumitu du (500.000 €).

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	25	43
Onartutako eskabideen kopurua	20	31



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Renove Industria 4.0 2023**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko Ekainaren 22koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen, argitaratzen eta iragartzen baitira “RENOVE INDUSTRIA 4.0” 2023 laguntza-programa arautzen duten oinarriak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/07/2303310e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarri hauen xedea enpresa parte-hartzaileen inbertsioak sustatzera bideratutako laguntza-programa bat arautzea da, makineria edo ekipamendu aurreratua (hardwarea eta softwarea) erosten laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko produktu-prozesu industrialari lotutako industria- eta zerbitzu-enpresetan industria adimendunaren esparruan teknologiak aplikatzera bideratutako Industria 4.0 proiektuak ezartze aldera

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Renove Industria 4.0 programak, abian jarri zenetik, eskaera handia izan du ekitaldi guztietan, eta, 2023an, 246 proiektu aurkeztu dira (helburuarekiko +% 72) eta 143 onartu dira (aurreikuspenekin alderatuta +% 186). 8 milioi euroko aurrekontua agortu da. Onartutako inbertsioa ia 39 milioi eurora igo da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	100	246
Onartutako eskabideen kopurua	50	143





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Erronka 2030**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2023ko abuztuaren 4(e)koa, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen, argitaratzen eta deitzen baitira "ERRONKA 2030" laguntza-programa arautzen duten oinarriak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/09/2304105e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua euskal ekintzailtza-ekosistema sustatzeko eta hobetzeko proiektuei laguntzea da, ekimenak dinamizatu eta bateratzeko, bertako eragileak elkartu daitezen eta parte har dezaten, eta, sinkronizazio eta koordinazio handiagoa lor dadin

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2030 Erronka programa 2023an argitaratu da lehen edizioan, eta 11 proiektu onartu dira, deialdiaren aurrekontuaren % 100 kontsumitu dutenak (150.000 euro), onartutako batez besteko zenbatekoa aurreikusitakoa baino handiagoa izan delako.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	20	36
Onartutako eskabideen kopurua	15	11



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Banda zabal ultralasterra enpresentzat 2023**

## 2.- Araua

SPRI - Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren EBAZPENA, 2023KO maiatzaren 15KOA, "Banda Zabal Ultralasterra Enpresentzat 2023" laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia argitaratzea agintzen duena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/05/2302507e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da banda zabal ultralasterreko sareak, kokaleku dituzten eremu geografikoetan komunikazio elektronikoen operadoreen telekomunikazio-azpiegiturak falta direlako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

14 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 14 onartu ziren, programaren aurrekontua agortuta. Interneteko zerbitzu-konpainien merkataritza-ekintza enpresaraino iristen ez den kasuetan, beharrezkotzat jotzen da euskal enpresei banda zabal ultralasterreko konexioa babesten jarraitzea.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	10	14
Onartutako eskabideen kopurua	10	14



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gaitasun digital profesionalak 2023**

## 2.- Araua

**SPRI - Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendariaren EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 25ekoa, "GAITASUN DIGITAL PROFESIONALAK" 2023 laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia egitea agintzen duena.**

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302720e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan "Gaitasun Digital Profesionalen" IKANOS sistema ezartzeko proiektuak bultzatzera bideratutako espezieetan emandako laguntzak emateko baldintzak zehaztea da oinarri hauen xedea, enpresaren lehiakortasuna eta pertsonen garapen profesionala hobetzeko helburuz.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

309 eskaera aurkeztu ziren, eta horietatik 288 onartu ziren, 1.500.000 euroko dirulaguntzarekin. Programaren aurrekontu-kreditua agortu zen, eta eskaerei ezin izan zitzaizkien erantzun.

Euskal enpresen digitalizazioan aurrera egiteko, funtsezkoa da teknologietatik ahalik eta errendimendu handiena lortzeko gai diren pertsonak izatea, eta, horretarako, lehenengo urratsa langileen ezagutza eta gaitasun digitalak ebaluatzea da, Europar Batasunaren DIGCOM ereduaren oinarritutako "IKANOS" metodologiaren bidez.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	110	125
Onartutako eskabideen kopurua	100	86



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Zibersegurtasun industrialia 2023**

## 2.- Araua

2023ko Martxoaren 16ko ebazpena, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen eta argitaratzen baitira "ZIBERSEGURTASUN INDUSTRIALA" 2023 laguntza programa arautzen duten oinarriak, eta beketarako deialdia egiten baita.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301561e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua Zibersegurtasun Industrialia bultzatzea da, bereziki enpresen zibersegurtasun-maila nabarmen handitzen laguntzen duten proiektuak, industria-produktuari eta industria-prozesuari lotutako zerbitzuen enpresetan

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

369 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 362 onartu ziren, 3.042.553 euroko dirulaguntzarekin.

Zibererasoen hazkunde esponenzialak ezinbesteko egiten du euskal enpresei babes-neurriak eta -tresnak hartzen laguntzea.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	350	369
Onartutako eskabideen kopurua	330	362



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Industria Digitala 2023**

## 2.- Araua

SPRI - Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendariaren EBAZPENA, 2023ko otsailaren 28koa, "Industria Digitala" 2023 laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea, argitaratzea eta deialdia egitea agintzen duena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301298e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enpresa industrialetan eta produktu-prozesu industrialekin lotutako zerbitzu-enpresetan, barne-prozesuetan eta bezeroekiko, hornitzaileekiko eta administrazioarekiko harremanen prozesuetan Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak (EIKTak) txertatzen laguntzea da Programaren helburua, enpresen lehiakortasuna hobetzeko xedez

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

641 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 582 onartu ziren, 5.873.676 euroko dirulaguntzarekin.

Beharrezkotzat jotzen da kudeaketa-tresna integratuak sartzen laguntzea, euskal enpresen digitalizazioan aurrera egiteko.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	750	641
Onartutako eskabideen kopurua	640	582



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Adimen artifizial aplikatua 2023**

## 2.- Araua

SPRI - Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren EBAZPENA, 2023ko maitzaren 5ekoa, "ADIMEN ARTIFIZIAL APLIKATUA 2023" laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia argitaratzea agintzen duena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/05/2302407e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan adimen artifizialean oinarritutako zerbitzu eta/edo irtenbide komertzialak aplikatzeko proiektuei laguntza ematea da. Proiektu horiek erakuste-efektua izan behar dute eta aukera eman behar dute Euskadin teknologia honen eskaintza eta eskaera aktibatzen, hala, enpresen lehiakortasuna hobetzeko

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

124 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 102 onartu ziren, programaren aurrekontua agortuz.

Beharrezkotzat jotzen da adimen artifizialeko tresnak euskal enpresetan txertatzen laguntzea, haien lehiakortasuna hobetzeko.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	75	124
Onartutako eskabideen kopurua	70	102



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Cloud 2023**

## 2.- Araua

SPRI - Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren EBAZPENA, 2023ko ekainaren 30ekoa, "CLOUD 2023" laguntza programaren oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia argitaratzea agintzen duena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/07/2303619e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da enpresa industrialetako edo produktu-prozesu industrialari lotutako zerbitzuetako areto teknikoetan edo CPDetan dauden zerbitzu edo azpiegiturak Cloud ingurune komertzialetara migratzeko proiektuei babesa ematea. Proiektu horiek Cloud zerbitzuak eskaintzen dituzten hornitzaile teknologikoei ezarri beharrekoak dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

34 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 31 onartu ziren, 435.754 euroko dirulaguntzarekin.

Enpresako datu-zentroetatik hodeiko zerbitzuetarako trantsizioa babestuz, malgutasuna eta kostu finkoen murrizketa lortzen dira, eta horrek euskal enpresen lehiakortasuna hobetzen du.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	15	34
Onartutako eskabideen kopurua	15	31



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Smart industry 2023**

## 2.- Araua

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal zuzendari nagusiak 2023ko ekaninaren 29an onartutako EBAZPENA, 2023 "SMART INDUSTRY" programa arautzen duten oinarrien onarpena eta deialdia adostu eta argitaratzea agintzen duena

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/07/2303568e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da honako kontzeptu hauei lotutako teknologiak gehitzeko proiektuak lantzeko garapen esperimentaleko proiektuak bultzatzea: Smart Industry, Adimen Artifiziala, Zibersegurtasuna, Konputazio Kuantikoa, 5G edo Cloud Computinga, besteak beste. Horiek guztiek garapen esperimentaleko fasean egon behar dute eta «hornitzaile teknologikoek» implementatu behar dute.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

41 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 37 onartu ziren, 1.995.071 euroko dirulaguntzarekin.

Beharrezkotzat jotzen da I+Gtik datorren teknologia euskal enpresetara transferitzen laguntzea.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aurkeztutako eskabideen kopurua	50	41
Onartutako eskabideen kopurua	45	37